

Ebete hizkuntza–zerbitzuak

**Kirol jardueretara begirako
eskaintza**

*Ebete hizkuntza–zerbitzuak
2023ko otsailean*

Aurkibidea

1- Abiapuntua	3
2- Entrenaatzaileentzat formazio saioak	4
3- Aholkularitza: Kirol jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzera begirako plangintza		
3.1- Programaren helburuak	6
3.2 - Programaren ekintzak	7
3.3- Antolaketa adibidea	14
3.4- Jarraipena, koordinazioa eta bitartekoak	17

1 Abiapuntua

Hainbat herri eta auzotan urrats berriak eman nahi dira haur eta nerabeentzat eskaintzen diren kirol jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzera begira, bereziki entrenamenduetan eta entrenatzaile eta partaideen arteko harremanean harreta jarritz.

Haur eta nerabe gehien gehienak eleaniztunak izateko bidean daude: gutxienez euskara, gaztelania eta ingelesa ikasten ari dira. Euskarazko eruedetan ikasten duten arren, euskara ere ondo ikastera begira, eta benetan euskaraz ere eroso eta erraz aritzera begira behar beharrezkoa da eskolaz kanpo euskara erabiltzeko aukerak izatea.

Are gehiago, haur eta nerabe askok euskara nagusiki eskolarekin lotzen dute, eta bizipen gutxi dituzte bestelako egoera eta harremanetan.

Norabide horretan laguntzera begira, kirol elkarteetan euskararen presentzia eta erabilera sustatzea oinarrizkoa da.

Ondorengo orrietan, Ebetetik norabide horretan laguntzera begira eskaintzen dugun aholkularitza aurkezten dugu.

2 Entrenatzaileentzat formazio saioak

Ebete hizkuntza-zerbitzuetatik hainbat urte daramatzagu kirol arloko entrenatzaileei begirako formazio saioak eskaintzen.

Honakoak dira aukerak:

- Oinarrizko saioak
- Proposamen zehatzak eta aholkuak
- Saio praktikoak

Oinarrizko saioak: abiapuntuko saioak dira eta entrenatzaileei oinarrizko irizpideak eta estrategiak eskaintzea bilatzen da. Zergatik sustatu euskararen erabilera eskola orduz kanpoko jardueretan? Zer egin? Zer ez egin? Zein dira oinarrizko estrategiak?

Proposamen zehatzak eta aholkuak: oinarrizko saioaren garapena da eta hainbat proposamen eta aholku eskaintzen dira. Zer egin haur batek ez badu euskaraz egin nahi? Nola jokatu entrenatzaileak berak euskaraz aritzeko mugak baditu? Zein jarduera dira egokiak erabilera sustatzeko? Nola txertatu hizkuntza-jolasak gure jardueretan?, eta abar.

Saio praktikoak: jardueren ezaugarrietara erabat egokitutako saioak. Bideoak erabiliko dira, simulazioak egingo dira, adibide errealak aurkeztuko dira... Bestek beste entrenamenduaren atalekin lotutako proposamen zehatzak aurkeztuko dira: beroeketei begirako hizkuntza-jolasak, teknifikazioan erabil daitezkeen errutinak, eta abar. Ahalik eta praktikoena izatera begira, jarduera egiten den lekuan bertan egin daitezke saioak eta, noski, jardueraren ezaugarriak eta parte hartzaileen adina kontuan izango dira.



Ezaugarriak eta antolaketa: ordu eta erdi inguruko saioak dira eta kirol arloan aritzen den teknikari batek dinamizatuko du. Antolatzaileekin adostuko dira saioak egiteko datak eta lekua.

Hiru saioak egin daitezke, baina antolaketara begira oso zaila ikusten bada, bi saio egitea ere egokia izan daiteke eta oinarri nagusoei buruzko saioa online ere egin daiteke.

Ohiko formazio saio hauetaz gain, azken urteetan lanketa sakongaoa egiteari heldu diogu Ebetetik, eta aholkularitza zerbitzu garatuagoa ere eskaintzen dugu. Hurrengo orrietan aurkezten da planteamendua.

3 Aholkularitza: Kirol jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzera begirako plangintza

3.1 Helburuak

Hauek dira programaren helburuak:

- Kirol elkarteetan euskararen erabilera eta presentzia bultzatu eta areagotzea: entrenamenduetan, kirol elkarten komunikazioan, kirol guneetako paisaia linguistikoetan eta ariketa sozialetan parte hartuz.
- Elkarteetan hizkuntza irizpideak adostu eta finkatzeko behar bezalako aholkularitza eskaintzea; elkarteek apurka–apurka, eurekin adostutako neurriak gero eta modu autonomoagoan euren jardunean eta kudeaketan txerta ditzaten.
- Elkarten euskararen aldeko jarrera sustatzea eta era berean, euskararen ahozko zein idatzizko erabilera bultzatzea bai klubetan kanpoko komunikazio ofizialeetan (kartelak, propaganda, sare sozialak), bai barnekoetan (familiekin, zuzendaritzako kideekin) ere.

Helburu horiei begira, honako atal hauek garatuko dira:

Euskararen erabilera eta presentzia bultzatzera begira:	Kirol elkarteetako arduradunen sentsibilizazioa, eta entrenamenduetan eta ekitaldietan euskararen erabilera indartzera begira entrenatzaileentzako formazioa, aholkularitza, proposamen zehatzak eta jarraipena.
Hizkuntza-irizpideak adostu eta finkatzera begira	Hitzarmengintzako ereduak erabiliz elkarteei buruzko informazioa jasotzea, eta bi–hiru urtetan zehar eman ditzaketen urratsei buruzko proposamenak egitea eta jarraipena adostea.
Euskararen aldeko jarrerak sustatzera begira	Arduradunekin eta entrenatzaileekin egingo den lanketaz gain, euskararen aldeko dinamiketan parte hartzaile eta eragile izan daitezkeen proposamenak egitea (III. Euskaraldia

	aurten).
Komunikazioetan euskara indartzera begira	Adosten diren hizkuntza-irizpideetan komunikazioa zaintzera begirako proposamenak, aholkularitza eta horiek aurrera eramateko baliabideak (itzulpenak, hiztegiak...).

3.2 Programaren ekintzak

Honakoak dira programan eskaintzen diren ekintzak:

- Bilerak zuzendaritza-taldeekin programa azaltzeko, erronkak aukeratzeko eta sentsibilizazio lana egiteko.
- Aholkularitza eta baliabideak eman elkarteei hizkuntza irizpideak euren eguneroko dinamikan txerta ditzaten eta jakin dezaten bere ingurunean sortzen diren harremanetara zabaltzen.
- Esku-hartze saioak entrenamenduetan, ekitaldietan... terminologia edo kirolarekin lotutako gaiak lantzeaz gain hizkuntza-estrategiei buruzko formakuntza ere emateko.
- Kirol elkarten komunikazioen (kanpokoak zein barnekoak) jarraipena egitea eta baliabideak eskaintzea horietan euskararen erabilera orekatua lor dezaten.
- Herriko aldizkarietan kirol taldeak egiten duen esfortzuak oihartzuna edukitzea, albisteen bidez.
- Jokalari euskaldunen “erreferentzialtasunaz” baliatuz, euskarari ikusgarritasuna ematea, profesionalekin baino gertuko erreferenteekin.

Oharra: Udal edo programa kudeatzen duten eragileekin batera adostuko dira aurrera eramango diren ekintzak.

Hauek dira abian jar daitezkeen hainbat ekintza zehatz:

<p>Bilerak zuzendaritza-taldeekin programa azaltzeko</p>	<p>Ikasturte hasieran zuzendaritza taldeetako ordezkariekin aurrez aurreko bilerak egingo dira, bilera bana elkarte bakoitzarekin. Bilera horietan aurretik jasota dagoen informazioa hartuko da abiapuntu moduan. Landuko diren gai nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Sentsibilizazioa ○ Ikasturtean eman daitezkeen urratsak hitzartzea, eta bereziki jarduera euskaraz eskaini ahal izan dadin euskaraz dakiten entrenatzaileak hartzeari begirakoak ○ Entrenatzaileekin egingo den lanketa adostea ○ Ikasturtean zehar eskainiko zaizkien baliabideak aurkeztea
<p>Aholkularitza eta baliabideak eman elkarteei</p>	<p>Honako lau ataletan jarriko da arreta berezia:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Familiekin harremana ● Ekitaldietarako irizpideak ● Sare sozialen kudeaketarako aholkuak ● Hizkuntza-paisaia <p>Lau arlo horietan zaindu ditzaketen irizpideak eskainiko zaizkie, eta horiek aurrera eramateko zein laguntza izan dezaketen azalduko zaie (mankomunitatetik, Ebetetik, wegbguneetatik...)</p> <p>Ebetetik itzulpenak egiteko zerbitzua ere eskainiko zaie.</p>
<p>Esku-hartze saioak. Entrenamenduetan jarriko da arreta nagusia.</p>	<p>Bi sentsibilizazio saio egingo dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Oinarrizkoa: entrenamendu on batek izan behar dituen ezaugarriak aztertuko dira, horren barruan euskararen presentzia eta erabilera zaintzearen garrantzia azaldu, eta oinarrizko estrategiak aurkeztuko dira.

	<p>Entrenatzaileen aldetik zein zailtasun egon daitezkeen ere aztertuko da proposamen zehatzak egitera begira: gaitasun aldetik mugak (erraztasunik ez, hizkera teknikoan hutsuneak...), hizkuntza-ohitura aldetik aldaketa handia izatea, eta abar.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Praktikoak:entrenamenduarekin lotutako saioa izango da eta kirol kantxan bertan egingo da. <p>Entrenamenduen atal guztiak aztertuko dira (beroketa, teknifikazioa, jarduera librea, lasaitzea), zaindu beharreko elementuak azalduko zaizkie (talde kohesioa, kirolarien auto-konfidantza), eta bereziki arreta hizkuntza estrategietan jarriko da. Oinarrizko estrategiez gain kirol atal zehatzekin lotutako dinamikak eta baliabideak aurkeztuko zaizkie: teknifikazio ariketa adibideak eta horietan hizkuntza-estrategiak txertatuta, euskara erabiltzea bermatzen duten berotze eta lasaitze ariketen adibideak, eta abar.</p>
	<p>Aurrez aurreko behaketak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskararen erabilera indartzera begira urrats nabarmenak eman nahi dituzten entrenatzaileen kasuan, aurrez aurreko behaketak egitea izan daiteke aukera bat. Hau da: entrenamendura joatea, zer eta nola egiten duen ikustea, eta ondoren proposamen zehatzak egitea. • Baliabide aldetik hori egiteko aukera dagoela ikusten bada, urrats esanguratsuak emateko aukera interesgarria izan daiteke.
	<p>Galdetegi bidezko jarraipena:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Formazio saioetan (edo saioen ondoren) entrenatzaileei beraien taldetako hizkuntza errealitateari buruz galdetuko zaie. Zehazki: beraiek euskaraz egiten ote duten, taldekideek nola egiten dioten, eta taldekideen artean nola egiten duten.

	<ul style="list-style-type: none"> • Horren arabera entrenatzaileei proposamen zehatzak helaraziko zaizkie idatziz: helburu zehatzak, estrategiak eta kontuan hartzekoak. • Galdetegia urtean hiru aldiz pasako zaie. Modu horretan bilakaerarik egon den ikusiko da, eta programaren urteko balorazioan ere egindakoa baloratzeko neurgailu baliagarria izango da.
<p>Kirol elkarten komunikaziora begira</p>	<p>Aholkularitza eta baliabideak eskainiko zaizkie klubetako arduradun eta entrenatzaileei.</p> <p>Aholkularitzari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kanpo eta barne komunikaziora begira kontuan izan ditzaketen irizpideak aurkeztuko zaizkie arduradunei • Galdetegi baten bidez gaur egungo egoera jasoko da eta ikasturte amaiera aldera berriz ere galdetegia beteko alderik egon den ikusteko <p>Baliabideei dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ebetetik itzulpenak egiteko aukera emango zaie, eta bereziki arreta jari nahi zaien lau ataletan: <ul style="list-style-type: none"> ◦ Familiekin harremana ◦ Sare sozialak ◦ Ekitaldiak ◦ Hizkuntza-paisaia • Klub batzuen kasuan entrenatzaileekin lanketa adin tarte jakin bateko taldeetan egingo da, baina itzulpen zerbitzua zabalago ere eskainiko zaie horrela eskatzen badute. Hori bai, aurrekontuetan jasotako muga barruan.
<p>Hedabideei zuzendutako ekintzak/komunikazio plana.</p>	<p>Hedabideei begira honakoa aurreikusten da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Klubekin ikasturterako urratsak adostu ondoren: <ul style="list-style-type: none"> ◦ Programari buruzko ohar edo azalpen bat, Euskara Zerbitzutik komunikabideetara bidal daitekeena edo sare sozialetara igo. ◦ Talde bakoitzarekin adostutakoari buruzko ohar

	<p>edo azalpen bat, elkarteetara bidaliko dena klubak gizarteratu dezan.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasturte amaieran, balorazioak egin ondoren: <ul style="list-style-type: none"> ◦ Programari buruzko ohar edo azalpen bat, Euskara Zerbitzutik komunikabideetara bidal daitekeena edo sare sozialetara igo. ◦ Talde bakoitzak egindakoari buruzko ohar edo azalpen bat, elkarteetara bidaliko dena klubak gizarteratu dezan. <p>Oharra: izenburu honen barruan ez dugu oso argi ikusten zer den Euskara Zerbitzutik nahi litzatekeena. Proposamen hau egin dugu baina asmoa beste bat balitz, moldaketak ere egin daitezke.</p>
<p>Jokalari euskaldunen “erreferentzialtasunaz” baliatuz, euskarari ikusgarritasuna ematea</p>	<p>Erreferenteen inguruan lanketa egingo da, baina gertuko erreferenteetan jarriko da arreta:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kluben lehen taldeetan dabiltzan jokalaria euskaldunak • Beste klub batzuetan dabiltzan maila nahiko altuko eskualdeko jokalaria euskalduna <p>Hau da: ez da goi mailako kirolarien bila joko, gertuko erreferente izan daitezkeen kirolariengana baino.</p> <p>Ikasturtean zehar honakoa aurreikusten da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erreferenteak haurren entrenamendutan parte hartzea (gutxienez 3 entrenamendutan) • Haurrek partidu esanguratsuak jokatzeko dituztenean, whatsapp bidezko bideo laburra bidaltzea (gutxienez 3 aldiz) <p>Oharra: planteamendu hau berria da Ebeterentzat baina oso interesgarria dela uste dugu. Erreferenteak aurkitzeko zailtasunak egongo balira, Euskara Zerbitzuarekin bestelako aukerak aztertuko dira.</p>



Hobekuntza: euskara indartzetik entrenamendua hobetzera

Ebate hizkuntza zerbitzuetatik, 2022–2023 eta 2023–2024 ikasturteetara begira, arreta nagusia entrenamenduetan jarri nahi dugu.

Lan egingo den klubetako hainbat entrenatzailek euskara gaitasuna badute, eta beraien aldetik aldaketa batzuk emanda eragina oso handia da: entrenamendua euskaraz dinamizatzea lortzen bada programaren helburu nagusiena neurri handi batean beteko da. Hau da: haurrei eta nerabeei eskolaz kanpo euskara entzuteko eta erabiltzeko aukerak ematea, eta euskara bizipen positiboekin lotzea.

Ebetetik gainera ahalegin berezia egin nahi dugu eskaintzen ditugun formazio saioak garatzen eta hobetzen. Norabidea honakoa da: euskara indartzera begirako formazio saioak eskaintzetik entrenamenduak hobetzera begira saioak eskaintzea.

Eskola kirolean eta haur eta nerabeen kirolean aritzen diren entrenatzaile askoren formazioa ez da gehiegizkoa. Kirola ondo ezagutzen dute baina entrenamendu osatu baten ezaugarriak ez dituzte ondo ezagutzen. Beraz, Ebetetik entrenamenduak hobetzeko aholkuak eskaini nahi dizkiegu eta horren barruan kokatu hizkuntza–estrategiak: hezitzaile berritsuak, teknifikazio ariketak adibideak eta horietan hizkuntza txertatuta, berotze eta lasaitze ariketak eta horiei begira hizkuntza baliabideak eta abar.

Planteamendu hau elkarte eta entrenatzaileentzat askoz erakargarriagoa dela iruditzen zaigu, eta epe ertain eta luzera benetako aldaketak ematen lagundu dezakeela ere bai.

Entrenatzaileei proposatuko zaizkien hizkuntza–oinarriak eta estrategiak Ebete hizkuntza–zerbitzuek Arabako Foru Aldundiarentzat landutako gida honetan jasotzen dira:

<https://euskaraba.eus/edukiak/uploads/2017/05/haur-eta-gazteen-jardueratarako-hezitzaileentzako-gida.pdf>



Hala ere, eduki horiek garatu egin dira entrenamenduen ezaugarriekin lotzeko. Besteak beste *Entrenatzaileentzako material praktikoa* izeneko dokumentua osatu dugu proposamen eta ideia zehaztekin.

3.3 Antolaketa adibidea

Klubetako arduradunekin lanketa		
Klubetako arduradunekin bilera	Sentsibilizazioa, irizpideak aurkeztea eta urteko plana adostea	Abuztua–Iraila
Arduradunen galdetegia	Galdetegia betetzea	Urria
Arduradunen galdetegia	Galdetegia betetzea	Apirila
Arduradunekin bilera	Balorazioa egitea eta aurrera begirako aukerak aztertzea	Maiatza

Entrenatzaileekin lanketa		
Entrenatzaileekin aurrez aurreko lehen saioa	Sentsibilizazioa eta oinarrizko estrategiak	Iraila–Urria
Entrenatzaileen galdetegia eta diagnostikoa	Galdetegia betetzea	Urria
Entrenatzaileekin aurrez aurreko bigarren saioa	Saio praktikoa	Urria
Entrenatzaileei proposamenak	Proposamen zehatzak egoeraren eta landutakoaren arabera	Urria–Azaroa
Entrenatzaileen galdetegia	Galdetegia betetzea	Urtarrila
Entrenatzaileei proposamenak	Proposamen zehatzak egoeraren eta landutakoaren arabera	Urtarrila
Entrenatzaileen galdetegia	Galdetegia betetzea	Apirila
Aukeran: entrenamenduen aurrez aurreko behaketak. Baliabideen arabera eta klub eta entrenatzaileen prestutasunaren arabera erabakiko da.		

Udalarekin koordinazioa		
Ikasturte hasierako bilera	Programa eta urratsak ondo zehaztea	Iraila
Txosten laburra	Egoera azaltzen duen txostena	Urria
Txosten laburra	Egoera azaltzen duen txostena	Abendua
Lehen hiru hileko amaierako bilera	Balorazioa egitea eta hurrengo urratsak adostea	Abendua
Txosten laburra	Egoera azaltzen duen txostena	Otsaila
Txosten laburra	Egoera azaltzen duen txostena	Apirila
Bigarren hiru hileko amaierako bilera	Balorazioa egitea eta hurrengo urratsak adostea	Apirila
Ikasturte amaierako balorazio txostena	Ikasturteko balorazioa eta aurrera begirako proposamenak	Ekaina
Ikasturte amaierako bilera	Balorazioa egitea eta aurrera begirako aukerak aztertzea	Ekaina
Komunikazioa, komunikazioa plana eta erreferenteekin lanketa		
Elkarteen komunikazioa	Itzulpen zerbitzua eskaintzea	Ikasturte osoan zehar
Komunikazio plana	Euskara Zerbitzutik komunikabideetara bidal dezakeen ohar edo azalpena.	Urria

	Talde bakoitzarekin adostutakoari buruzko ohar edo azalpen bat, elkarteetara bidaliko dena klubak gizarteratu dezan.	Urria
	Euskara Zerbitzutik komunikabideetara bidal dezakeen ohar edo azalpena.	Ekaina
	Talde bakoitzarekin adostutakoari buruzko ohar edo azalpen bat, elkarteetara bidaliko dena klubak gizarteratu dezan.	Ekaina
Erreferenteekin lanketa	Erreferenteak entrenamenduak hurrekin	Urtarrila-otsaila
	Erreferenteak bideo laburrak hurrei (partiduen ondoren...)	Martxoa-Apirila
Euskararen aldeko Txapelketa	Kurtso bukaeran txapelketa bat antolatuko dugu EBETerekin batera euskararen erabilera sustatzen ibili diren taldeekin. Modu honetan emango zaio urteari bukaera eta indar erakustaldi bat izateko baliogarri izango da	Maiatza-Ekaina

3.4 Jarraipena, koordinazioa eta bitartekoak

Ebete hizkuntza-zerbitzuetako **hiru teknikarik** parte hartuko dute proiektuan:

- Markel Baroja Laita: Kirol psikologoa. Proiektuaren arduraduna izango da. Bera izango da Udalarekin harremanei begira erreferentziazko pertsona.
- Aritz Olagoi Olazabal: Kirol psikologoa. Elkarrekin harremanean eta entrenamendu saioetan parte hartuko du. Baita programaren jarraipenean ere.
- Iñaki Eizmendi Arsuaga: Gizarte Hezitzailea. Ebete arduradun moduan, programari jarraipena egingo dio.

Hiru pertsona hauek eskarmentu handia dute euskalgintzan eta kiroletako elkarrekin lanean. 2021–2022 eta 2022–2023 ikasturteetan, adibidez, kirol arloarekin lotutako proiektuak kudeatu dituzte eta entrenatzaileekin hainbat saio egin dituzte ondorengo herrietan: Enkarterriak, Santurtzi, Basauri, Soraluze, Bergara, Orozko, Ugao edota Etxebarrin.

Ikasturtean zehar **gutxienez hiru koordinazio bilera** egingo dira Ebete eta Udalaren artean. Udaleko teknikariek adostuko da saioak aurrez aurre edo online egingo diren.

Txosten labur bat bidaliko da Euskara Zerbitzura urrian, abendua, otsailean eta apirilean. Programaren egoera zein den azalduko da eta baita hurrengo urratsak zein diren ere. Elkarrekin batekin programa aurrera eramateko zailtasunik egongo balitz, Udalak egoera zein den jakiteko eta dena delako erabakiak hartzeko ere erabiliko da txostenen informazioa.

Ekainean amaierako **ebaluazio txosten bat** osatu eta aurkeztuko da.